



GASTEIZKO EMAKUMEEN ETXEAREN ERABILERA- ETA BIZIKIDETZA- ARAUAK

I. KAPITULUA. DEFINIZIOA, HELBURUAK, ESPAZIOA ETA ERABILTZAILEAK

1. artikulua. Emakumeen Etxea

Emakumeen Etxea Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak kudeatzen du 2021eko apirilaz geroztik, Sorginenea elkarteak "Sorginenea Tu Casa Feminista" proiektua garatzeko lankidetzarako esparru-hitzarmenari berariaz uko egin ondoren. Hitzarmena iraungitzeak Etxanobe jauregiaren gaineko jabari publikoaren emakida iraungitzea ekarri zuen berekin.

2. artikulua. Helburu orokorra

Emakumeen Etxearen helburu orokorra da ahalduntze feministari (banakakoari nahiz kolektiboari) bide ematea eta gizartea eraldatzen laguntzea, Gasteizko emakumeek¹ beren eskubideak guztiz baliatu ahal izatea bermatzeari begira. Orobat, hausnartzeko, prestatzeko, parte hartzeko eta eragiteko gune eta prozesu feministak sustatu eta finkatzeko helburua du.

3. artikulua. Espazioaren ezaugarriak

Gasteizko Etxanobe jauregian du egoitza (Santa Maria kalea 11), eta Gasteizko Udalaren titulartasunekoa da.

Hainbat gune ditu, lau solairutan banatuta: beheko solairuan, harrera, koordinazio gunea, haurrentzako gunea (txikigunea) eta *officea* daude, eta kanporako irteera bat du; lehen solairuan, hiru bulego daude, Berdintasun Zerbitzuko talde teknikoarentzat, baita areto bat ere (1. lantegia); bigarren solairuan, beste areto bat (2. lantegia), erabilera askotarako espazio zabal bat (areto nagusia) eta bi areto txiki, elkarren artean ate baten bidez konektatuta; hirugarren solairuan, berriz, topaketa- eta irakurketa-gela bat dago, eta Eleen Ganbara liburutegia, gaur egun Sorgineneak kudeatzen duena, gehi biltegi bat.

Etxean Gasteizko Udaleko Berdintasun Zerbitzuko talde teknikoak lan egiten du. Elkarte eta kolektibo feministek ere parte hartzen dute, beren jarduerekin Emakumeen Etxearen proiektuaren helburu orokorrari laguntzen dioten emakume-taldeekin batera, betiere Gasteizko Udalak arautzen dituen printzipioekin eta jarduketara-ildoekin bat badatoz.

Bulego teknikoek giltza dute, eta itxita egongo dira langileen lan-ordutegitik kanpo.

Beheko solairua:

- Jendearentzako bulegoa eta bilera-gela / Harrera: (9 pertsona gehienez, 17,71 m²): gaur egun, bulego bat da, eta proiektu honen erabiltzaileei arreta emateko

¹Gasteizerako emakumeen etxe bat sortzeko partaidetza-proiektuan (2017ko abendua) adostutako esparruaren arabera, "emakumeak" aipatzen diren guztietan, emakumeak, lesbianak eta transak barne direla ulertuko da.



eta lehen harrera egiteko lekua ere bada.

- Harrera / Biltegia-Garita (2 pertsona gehienez, 18,55 m²): gaur egun, arreta-ordutegitik kanpo erabiltzaileak hartzeko funtzioa betetzen du.

- Erabilera askotarako 1. aretoa / Txikigunea (61 pertsona gehienez, 60,94 m²): adingabeak zaintzeko eta bilerak edo jarduerak egiteko espazioa. Sukaldea eta bi komun ditu.

Solairu horretan bi komun daude.

Lehen solairua:

- 2. aretoa / Berdintasun Zerbitzua (16,21 m²)

- 3. aretoa / Berdintasun Zerbitzua (27,40 m²)

- 1. eta 2. bulegoak / Berdintasun Zerbitzua (18,87 m² + 15,25 m²)

- 1. aretoa / 1. lantegia (21 pertsona gehienez, 30,80 m²)

Gainera, bi komun ditu, lehen solairuaren alde banatan.

Bigarren solairua:

- Erabilera askotarako 2. aretoa / Areto nagusia (edukiera jarduera motaren arabera alda daiteke, 72 pertsona gehienez; 92,94 m²): espazioa jarduera ezberdinetara egokitzeko aukera ematen du (foroak, mintegiak, hitzaldiak, dantza...)

- 4. aretoa / 2. lantegia (15 pertsona gehienez, 28,17 m²)

- 4. bulegoa / Bilera-gela: informazio- eta orientazio-zerbitzua etxeko langile eta zaintzaileentzat (4 pertsona gehienez, 11,10 m²)

- 3. bulegoa / Biltegia (13,38 m²)

Bigarren solairuak komun bat du.

Hirugarren solairua: Liburutegi feminista eta irakurgela. Biltegirako gune bat ere badu.

- Irakurgela / Irakurketa eta topaketa gela (14 pertsona gehienez, 27,60 m²)

- 2. bilera-gela / Eleen Ganbara liburutegia (16 pertsona gehienez, 31,62 m²)

- Biltegia (9,64 m²). Gaur egun, garbiketaren arduradunaren gela da (udal langilea), eta berak bakarrik du sarbidea.



II. KAPITULUA. PRINTZIPIOAK ETA JARDUERA- ILDOAK

4. artikulua. Printzipioak²

1. Etxea inklusiboa, irekia eta plurala izango da.
2. Feminista izango da, eta feminismoaren sustatzailea hirian.
3. Leku seguru eta konfiantzazkoa emakume guztientzat.
4. Erreferentea feminismoaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten pertsona, elkarte eta entitate guztientzat.
5. Irisgarritasun unibertsalaren bultzatzailea.
6. Elkartzeko eta elkar aitortzeko lekua; bertan, balioa emango zaie sexu- eta orientazio-aniztasunari, aniztasun funtzionalari, jatorri-, kultura-, klase-aniztasunari...
7. Errespetu- eta ekitate-balioek araututako espazioa, prestakuntza, prozesuak, sormena eta aisia barne hartzen dituen, betiere ikuspegi feminista eta interseksional batetik. Gasteizko Berdintasunerako V. Planaren printzipioak oinarri integraztailetzat hartu dira, baita berdintasun-helburuekin eta aniztasunaren alorrekoekin koherenteak diren udal arau-markoak ere.

5. artikulua. Nori zuzenduta dagoen

Emakumeen Etxea proiektua pertsona guztiei irekitako espazioa da, eta bertako jarduerak bereziki publiko hauei zuzentzen zaizkie:

- Emakumeak: elkarte bateko kide izan ala ez.
- Emakumeen kolektiboak eta kolektibo feministak.
- Beste ekimen feminista batzuk.

6. artikulua. Jarduera-ildoak

Etxearen jarduera-ildoak Ekin! Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planaren ildo estrategikoak dira. Gainera, talde eskatzaileek Etxeari ematen dioten erabilerak ildo estrategiko horiekin bat etorri beharko du, eta hori eskaera-fitxan justifikatu beharko dute.

Hona hemen aipatutako ildo estrategikoak:

1. ildo. Genero-berdintasuna udal-gobernuaren ereduaren.
2. ildo. Ekofeminismoa eta bizitzaren jasangarritasuna.

²Printzipio hauek Gasteizerako emakumeen etxe bat sortzeko partaidetza-proiektuan adostutako esparru-akordioan oinarritzen dira (2017ko abendua), baina gaur egungo errealitatera egokitu dira.



3. ildo. Ahalduntze feminista.
4. ildo. Indarkeria matxistarik gabeko hiria.

III. KAPITULUA. EMAKUMEEN ETXeko ORDUTEGIA, ESPAZIOEN ETA MATERIALEN ERABILERA

7. artikulua. Ordutegia

Emakumeen Etxeko jarduerak, oro har, etxea irekitzeko eta bertan arreta emateko ordutegian egin ohi dira, Berdintasun Zerbitzuaren berezko jarduna izan ezik.

Irekitzeko ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 10:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00.

Uztailean goizez irekitzen da, eta abuztuan itxita egoten da jendearentzat.

Etxea asteburuetan ere jendearentzat irekitzea aurreikusten da, zerbitzuak nahiz kanpokoek programatutako jarduerak irauten duten bitartean. Berdintasun Zerbitzuko teknikariek baloratuko dituzte jarduera horiek, 10. artikuluan aurreikusitako prozeduraren eta baldintzen arabera.

8. artikulua. Hizkuntza ofizialen erabilera

Emakumeen Etxeak arreta euskaraz eta gaztelaniaz ematea bermatzen die Gasteizko emakumeei, eta bi hizkuntzetan zabaltzen ditu gauzatzen diren proiektuen esparruan egindako material publikoak. Gainera, Etxean euskararen erabilera bultzatzeko eta areagotzeko beharrezkoak diren beste neurri batzuk garatzen ditu.

9. artikulua. Emakumeen Etxearen erabilera oro har

Emakumeen Etxeko espazioek hainbat erabilera dituzte:

- 1.- Berdintasun Zerbitzuak antolatutako ekintzak eta Emakumeen Etxea proiektuko eta Jabetze Feministarako Eskolako taldeen bilerak.
- 2.- Elkaratek aretoak puntualki edo denbora luzeagoz erabiltzea, 10. artikuluan araututakoaren arabera.
- 3.- Sorginenea elkaratek liburutegiko espazioa etengabe erabiltzea, 13. artikuluan araututakoaren arabera.

10. artikulua. Espazioak lagatzea

Edozein kolektibo edo erakundek du Emakumeen Etxeko espazioetan parte hartzeko eta erabiltzeko eskubidea Etxea irekita dagoen ordutegian, baldin eta 2. artikuluan adierazitako helburua lortzeko jarduerak egin nahi badituzte, eta 4. eta 6. artikuluetan deskribatutako printzipioekin eta jarduketa-ildoekin bat badatoz, Berdintasun Zerbitzuak baloratu eta berretsi ondoren. Izan ere, teknikariek



ahalmena dute espazioak erabiltzeko jasotako eskaerak aztertzeko eta ezarritako printzipioekin eta egokitasun-irizpideekin bat ez datozen proposamenak ukatzeko. Baztertzailatzat jotzen dira indarkeriazko, larderiazko edo diskriminaziozko diskurtso eta portaerak betikotzen dituzten erabilera-eskaerak, hala nola portaera sexistak, arrazistak, homofoboak, transfoboak, autoritate-abusuak eta duintasuna eta giza eskubideak kaltetzen dituen beste edozein portaera.

Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Nagusian izena emanda dauden elkarteek eskatu ahalko dute espazioak lagatzea, edo dagokion erregistro publikoan izena emanda daudenek.

Elkarteek noizean behin edo maiz erabil ditzakete Etxeko aretoak.

Aretoak erabilera puntualetarako lagatzea

Erabilera puntualetarako erreserbatzat jotzen dira gehienez 2 eguneko iraupena duten jarduerak.

[Eskaera](#) idatziz egin behar da (2. eranskinetako fitxaren arabera) eta gutxienez 8 egun baliodun lehenago bidali Berdintasun Zerbitzura, zehazki, emakumeentxea@vitoria-gasteiz.city helbide elektronikora; bestela, zuzenean entregatu ahal zaie Etxeko langileei. Eskaera 3 egun balioduneko epean onartu edo ezetsiko da, aretoen erabilgarritasuna eta Etxearen printzipioak eta jardun-ildoak kontuan hartuta.

Berdintasun Zerbitzuak baloratuko ditu eskabideak, eta jasotzen diren hurrenkeraren arabera erantzungo zaie. Jarduera bat baino gehiago aldi berean gertatzen badira, Berdintasun Zerbitzuari dagokio entitateetako bati lehentasuna ematea, jarduera hemen jasotako jarduera-ildoekin bat datorren kontuan hartuta, baita edukien aniztasuna eta/edo eskaeraren iriste-hurrenkera kontuan hartuta ere.

Aretoak denbora luzeagoz erabiltzeko lagatzea

Iraupen luzeagoa duten jardueretarako ere (2 egun baino gehiago), idatzizko [eskaera](#) egin beharko da, online edo aurrez aurre, gutxienez 15 egun baliodun lehenago. Berdintasun Zerbitzuak 4 egun balioduneko epean erantzungo du, aretoen erabilgarritasuna eta Etxearen printzipioak eta jardun-ildoak kontuan hartuta.

Iritsi diren hurrenkeraren arabera onartuko dira eskabideak. Jarduera bat baino gehiago aldi berean gertatzen badira, Berdintasun Zerbitzuari dagokio entitateetako bati lehentasuna ematea, jarduera hemen jasotako jarduera-ildoekin bat datorren kontuan hartuta, baita edukien aniztasuna eta/edo eskaeraren iriste-hurrenkera kontuan hartuta ere.

11. artikulua. Txikigunearen erabilera

Txikigunearen erabilera Etxean antolatzen diren jardueri lotuta dago, eta haren kudeaketa eta funtzionamendu egokia jarduera antolatzen duenaren erantzukizuna da.



Haurren legezko arduradunen baimenak behar dira 12 urtetik beherakoak eta 2 urtetik gorakoak utzi ahal izateko.

Premia sortu den jardueraren arduradunak kudeatu beharko du, eta Jabetze Feministarako Eskolaren jardueretarako Udalak kontratatzen dituen langileekin harremanetan jartzeko bide emango zaie.

12. artikulua. Beheko solairuko officea erabiltzea

Officearen espazioa jardueraren baterako erabili nahi izanez gero, aldez aurretik eskatu beharko da, [aretoak lagatzeko](#) fitxa betez, erabilera mota eta ordutegia adierazita; Txikigunean jarduerarik ez badago erabili ahalko da. Kafetegiko elementuak erabil daitezke; kontsumitzen dena birjarri egin beharko da, eta erabilera desegoki baten ondorioz tresnarik hondatu edo hausten bada, hori konpondu edo lehengoratu egin beharko da.

13. artikulua. Eleen Ganbara liburutegia eta Irakurketa eta topaketa gela erabiltzea

Sorginenea elkarteak kudeatzen du Eleen Ganbara Liburutegi Feministaren zerbitzua, Emakumeen Etxea proiektuaren barruan, baita bereziki emakumeei zuzendutako azterketa eta irakurketa feministarako gunea ere. Horretarako, Gasteizko Udalak bertan dauden espazioa eta baliabide materialak Sorginenea elkarteari lagatzen dizkio.

Liburutegiak bere proiektua du, baita erabilera-arau propioak ere, beti ere Emakumeen Etxeko barne araudi honekin bat etorritik.

Sorginenea elkarteak urteko proiektua eta oroitidazkia aurkeztu behar ditu, eta Berdintasun Zerbitzuak onartu beharko du, Emakumeen Etxea proiektuaren barruan zerbitzu hori kudeatu eta erabiltzeko.

14. artikulua. Biltegiko espazioak erabiltzea

Elkarteek aldez aurretik eskatuta, horiek erabiltzeko baimena ematea aztertuko da. Kasu bakoitzean zehaztuko dira erabileraren ezaugarriak, betebeharrak eta epeak.

15. artikulua. Ekipamendu eta materialen erabilera

Jarduera batean ekipa teknikoak martxan jartzea eta erabiltzea jarduera egiten duen pertsonaren erantzukizuna da, eta [Gelak eta ekipamendua erabiltzeko eskaera-fitxan](#) zehaztu beharko da.

Orobat, haren ardura izango da zuzen itzaltzea eta gordetzeko entregatzea. Erabiltzean arazorik bada, idatziz jakinarazi beharko da, [gorabeheren fitxa](#) betez.

Jardueraren arduradunak zainduko du parte-hartzaile guztiek materialak zuzen erabiltzea.



16. artikulua. Jardueren jarraipena

Aretoaren erreserba egiaztatu ondoren, antolatzaileek jardueraren [jarraipen fitxa](#) jasoko dute. Jarduera burutu eta gero, fitxa bete eta Berdintasun Zerbitzuari helarazi beharko zaio, aurrez aurre edo posta elektronikoz (emakumeenetxea@vitoria-gasteiz.city).

17. artikulua. Internet

Emakumeen Etxeak badu internet zerbitzurik, eta erabilera librea eta doakoa da. Zerbitzua erabiltzeko pasahitzak Etxearen sarreran daude ikusgarri eta eskuragarri.

IV. KAPITULUA. ERABILTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

18. artikulua. Eskubide eta betebeharrak

1. Parte-hartzaileek erabilgarri dauden espazioak eta ekipamenduak erabiltzeko eskubidea dute, aldez aurretik hitzartutako ordutegi eta datetan.
2. Elkarte edo entitate batek edozein jarduera egiteko Etxeko espazioren bat erabiltzea eskatzen duen aldiro, arduradun bat izendatu beharko du, Berdintasun Zerbitzuaren aurrean erantzun dezan.
3. Parte-hartzaileek bere egiten dituzte Emakumeen Etxearen barne arau hauek, Etxearen oinarriko funtzionamendu-arautzat.
4. Emakumeen Etxea bizikidetzarako espazioa da, aniztasunaren aitortzearen eta lankidetzaren, elkarrekikotasunaren eta elkarrengandik ikastearen eta elkarrenganako errespetuaren printzipioetan oinarritua, eta bertan ez dira onartuko indarkeriazko, larderiazko edo diskriminaziozko portaerak, hala nola portaera sexistak, arrazistak, homofoboak, transfoboak, autoritate-abusuak eta duintasuna eta giza eskubideak kaltetzen dituen beste edozein portaera.
5. Instalazioak eta ekipamenduak erabiltzen dituzten pertsona guztiek erabilera-arauak irakurri behar dituzte, eta egoera ezin hobean mantentzeko betebeharra izango dute; orobat, parte hartzen duten pertsona guztiek zuzen erabiliko dituztelako erantzukizuna hartuko dute beren gain, eta gerta daitezkeen kalteak konpontzeko konpromisoa hartuko dute.

Ez da inolako bermerik jartzeko eskatuko.

6. Lagatzen diren ekipamenduak eta materialak Etxean bertan erabiltzeko dira, eta ezin dira bertatik atera, berariazko baimenik izan ezean.
7. Elkarrekin onartzen dute baimena alde bakarretik errebokatzea, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, interes publikoko arrazoiengatik, baldin eta jarduerak gerora onartutako baldintza orokorrekin bateraezinak badira, edo



horiek jabari publikoan kalteak eragiten badituzte, interes publiko handiagoko jardueretarako erabiltzea eragozten badute edo erabilera orokorrari kalte egiten badiote.

8. Berdintasun Zerbitzuak edozein unetan ikuskatu ahalko du baimenaren xede den ondarea, erabilera baimenean zehaztutakoarekin bat datorrela bermatzeko.

9. Baimena iraungitzeko arrazoiak: Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2023 Legearen 100. artikuluan jasota dauden arrazoiengatik iraungi ahalko da emakida.

19. artikulua. Tasen gaineko salbuespena

Ogasun Sailak instalazio eta material horien erabileraren lagapena doako erabileratzat jotzen du, betiere lehen deskribatutako jarduera eta helburuekin lotuta badaude, 7.11 Ordenantza Fiskalaren (Kultur eta biltzar ekipamenduak, ekipamendu polifuntzionalak eta gizarte-etxeak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak) 4 bis artikuluko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera. Izan ere, elkarte horien jarduna interes handikoa da Gasteiz hiriarentzat eta bertako biztanleentzat, ahalduntze feministari (indibiduala eta kolektiboa) bide emateko eta gizartearen eraldatzen laguntzeko, Gasteizko emakumeek beren eskubideak guztiz baliatu ahal izatea eta genero-berdintasuna bermatzeari begira.

ETXEAREN BARNE-ERREGIMENEN ARAUEN DOKUMENTU OSAGARRIAK:

1. [Gelak eta ekipamendua erabiltzeko eskaera. Emakumeen Etxea](#) fitxa.
2. [Gorabeheren fitxa. Emakumeen Etxea](#)
3. [Jardueren jarraipena. Emakumeen Etxea](#)